

Fundazioak haurrentzako oporretako jarduera programa zabaldu du

Santa Maria Katedrala Fundazioak haurrentzako eta familientzako hainbat jarduera antolatu ditu Aste Santuko oporraldirako. Martxoaren 27an eta 28an, eta apirilaren 3an eta 10ean, 5 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendutako "Doctora Pilaes" izeneko bisitaldiak eskainiko dira, Katedral batek behar dituen zainketak modu dibertigarrian eza-gutu ditzaten. Martxoaren 27ko eta apirilaren 3ko eta 10eko saioa 17:00etan izango da, eta igandekoa, martxoaren 28koa, 12:30ean.



Pazko astean, jarduera indartzeko, 7 eta 11 urte bitarteko haurrentzako saio bikoitza egingo da: bisita-

tailerra eta pista-jokoa. Jarduerak bi egunetan egingo dira (apirilaren 6an eta 7an eta apirilaren 8an eta 9an), eta lehenik eta behin bisita-tailerra egingo da. Bertan, katedralaren barrualdea eta kanpoaldea bisitatu ondoren, berau osatzen duten zatiak identifikatzeko, arkitektura gotikoari buruzko aurkezpen bat egingo da. Tailerrari begira, elementu bereizgarrietako bat aukeratuko da, gargolak, esaterako, eta haurrek Erdi Aroko gargola tipikoa egin ahal izango dute maché paperean.

Bigarrenik, Pista Jokoa egingo da. Bertan, Katedralako hainbat puntutan utzitako Pazko arrautzak aurkitu beharko dira, eta barruan dituzten mezu zifratuak aurkitu, azken saria lortzeko.

Jarduera liturgikoak Aste Santuan

Santa Maria katedralak, ohi bezala, Aste Santuko ospakizun liturgikoak hartuko ditu, eta aurten indarrean dauden osasun-araue-tara egokituta egongo dira eta edukiera kontrolatu egingo da.

Aurreikusitako ekitaldiak honako hauek dira:

Apirilak 1 , Ostegun Santua:	meza 19:30 ean.
Apirilak 2 , Ostiral Santua:	meza 19:30 ean.
Apirilak 3 , larunbata:	Pazko Bijilia 19:30 ean.
Apirilak 4 , Pazko Igandea:	meza 12:00 etan.



"Arkitekturaren Arkeologia" klasea Katedralean

Joan den otsailaren 15ean, astelehenean, Eraikitako Ondarea eta Eraikuntzak Birgaitzeko, Zaharbertzeko eta Osorik Kudeatzeko Unibertsitate Masterrarekin (EHU) lankidetzan, "Arkitekturaren Arkeologia" irakasgaiaren klase bat eman zen Santa Maria Katedralean.

Fotogrametria eta eskaner bidez datuak atzemateko adibide praktiko bat egin zen, eta, ondoren, puntu-hodeia eta hiru dimentsioko ereduak sortu ziren. Prestakuntza osatzeko, Amaia Mesanza Moraza doktoreak "Aldagai anitzeko azterketa, altxaeren irakurketa stratigrafikoari aplikatua" gaiari buruzko klasea eman zuen.




Denboraren Marka

Duela gutxi, Antso Jakituna Fundazioak Katedraleko eta Santa Maria Plazako argazki zahar batzuk partekatu ditu bere sare sozialetan. Horietako batzuek balio historiko handia dute, eta aukera ematen digute denboran zehar bidaia txiki bat egiteko eta tenpluak bizirik dirauela jakiteko, eboluzionatuz, aberastasunari eusteko eta hurrengo belaunaldietan iraungo duela bermatzeko.


Santa Maria Katedrala Gasteizko beste ezein eraikin ez bezala, bere hormetan denboraren marka erakusteko gai da. Orrialde honetako bi argazkien artean dauden 65 urte soiletan, tenpluak eta bere inguruak, zenbait eraldaketa jasan dituzte, hiriaren gairontzeko garapenarekin eta hazkunderarekin bat etorritz.

Irudi horietan dagozkien zenbakiak adierazi ditugun 9 desberdintasun ikus daitezke. Halaber, aldaketa hori zehatzago ikusteko, Fundazioak bideo konparatibo bat igo du Youtubeko bere kanalera. Pieza, Fundazioaren Youtubeko kanalean ikusgai:

www.youtube.com/user/Katedraldea



© Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



- | | |
|------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------|
| 1 Txapitulako leihoa | 6 Santiagoko Kaperako estalkiko arnasbideak |
| 2 Hegoaldeko Hastialaren gaineko estalkiaren gailurrean dagoen kanpai txikia | 7 Arku lobulatuzko leihoak |
| 3 Santa Anako kontrahorma | 8 Erlaitz berria |
| 4 Santa Anako ataria | 9 Plazako Iturria |
| 5 Dorrea | |